

FOESSA TXOSTENA

LAN DUINA IZATEKO ESKUBIDEAREN URRAKETA: ENPLEGUA ETA GIZARTE-BAZTERKERIA

FOESSA Fundazioaren Batzorde Teknikoa

Historikoki, enplegua pobrezia eta bazterkeria egoerei aurre egiteko babes faktore nagusia izan da. Duela urte batzuk, lana zuten eta langabezian zeuden pertsonen arteko mugak bereizketa argi bat markatzen zuen: lana zuten pertsonak gizartean beren burua kokatu ahal izateko bermea zuten; eta, lana ez zutenak bazterkeriaren mugara hurbiltzeko arriskuan zeuden. Azkenaldian, muga hori ez da hain zehatza eta, pertsona batzuk, nahiz eta lanean egon, gizarte-bazterkerian egoteko arriskuan daude, soldata baxuko enpleguak, ordukakoak eta aldi baterakoak izateagatik; horren ondorioz, lan-merkatutik sartu-irtenean ari dira eta ez dute euren burua guztiz kokatzea lortzen.

Egia da, oraindik ere, enplegua lortzea dela gizarteratzeko biderik onena, baina kontuan izanda enpleguak prekarioak eta aldi baterakoak direla, gaur egun ikusten garen egoera zera da: enplegua izatea ez dela gizarteratzearen sinonimoa.

Enplegua daukaten familien erdiak (**% 52**)¹, ez daude erabat integratuta. Horrek erakusten du enplegu batzuek ez dutela bermatzen etxeetan dauden beharrianak estalita eduki ahal izatea.

Langabezia: bizirik jarraitzen duen errealitatea

Azken 5 urteetan, langabezia-tasa nabarmen murriztu da lurralde osoan, beraz, lanean ari den biztanleriaren kopurua handitu egin da. Bilakaera positiboa izan arren, egungo langabezia-tasak altuak dira oraindik ere, eta krisiaren aurreko tasen ia bikoitza dira (% 7,9 2007ko bigarren hiruhilekoan).

2018ko bigarren hiruhilekorako langabezia-tasa, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (EPA) datuen arabera, **% 15,3an** kokatu zen. Hala ere, eta prekarizazioaren ertzetan sakontzeko asmoz, badaude beste pertsona batzuk sartzen dituzten neurri batzuk, EPAk kontabilizatutako langabeez gain; hala nola, enplegu erregularizazio espedientea duten pertsonak, dagoeneko desanimatu eta lana bilatzeari utzi dioten langabeak edota beren borondatearen aurka² lanaldi partziala dutenak. Neurketa horien arabera, enplegu arloko zailtasunak biztanleria aktiboaren **% 24,6ra** heltzen dira. Horrek esan nahi du lau pertsonatik bat babesgabetasun egoeran dagoela, enplegua eduki arren³.

¹ Letra lodiz adierazitako datuak erantsitako tauletan zehaztuta daude, Autonomi Erkidegoaren arabera.

Enpleguaren gaitasun babeslea azter dezakegu, 2018ko EINSFOESSAren⁴ inkestaren bidez. Inkesta horren arabera, pobrezia eta bazterkeria tasa handienak langabetuen kolektiboen kontzentratuta daude. Horien artean, % **46** bazterkeriaren eremuan daude oraindik (% **25,9** bazterkeria larrian), eta % **17,2** pobrezia larrian. Zifra horiek alderatzen baditugu biztanleria osoaren multzoarekin, % **18,4** bazterkeria egoeran eta % **5,1** pobrezia larrian egonik, esan dezakegu enplegua ez edukitzeak 2,5engatik biderkatzen duela bazterkeria egoeran egoteko arriskua, eta hirukoiztu egiten duela pobrezia larrian egoteko arriskua.

Enplegua duten eta gizarte-bazterkerian dauden pertsonak

Enplegurik ez izatea ez da bazterkeria edo pobrezia egoeretara eramaten gaitzakeen faktore bakarra. Babesgabetasuna lana duten pertsonen artean ematen ari da; beraz, esan dezakegu enplegua izatea dagoeneko ez dela integrazio eta ongizatearen sinonimoa. Horrela izanik, lanean ari diren biztalen % **12,3** bazterkeria egoeran daude; pobrezia larriaren kasuan, kolektibo horren % **2,1** daude egoera horretan.

Borondatearen aurka lanaldi partziala egitea da egoera horietara eramaten gaituen eragile nagusietako bat. Lanaldi partzialeko kontratuak dituzten pertsonen galdetzean zein den lanaldi osoa ez izatearen arrazoia, % **51,7k** adierazten dute *ezin izan dutela lanaldi osoa lanik aurkitu*. Azterketa kolektibo horretan zentratuta, hala nahi izan gabe lanaldi partziala daukaten pertsonena, bazterkeria zifrak % **32,8ra** heltzen dira, eta pobrezia larriarenak % **7,7ra**.

Borondatez kanpoko partzialtasunarekin gertatzen den moduan, aldi baterakotasuna bazterkeria eragiten duen beste faktore nagusietako bat da. Horrela izanik, aldi baterako kontratua duten pertsonen % **23,6** bazterkeria egoeran daude; aldiz, zifra murriztu egiten da kontratu mugagabea duten pertsonen kasuan; kasu horretan, % **9,5i** eragiten die. Horrek esan nahi du aldi baterako kontratua edukitzeak 2,5engatik biderkatzen duela bazterkeria egoeran egoteko arriskua.

Enplegua duten pertsonen etxeetan dauden arazo ekonomikoak

Pobrezia eta bazterkeria egoerez harago, badaude enpleguaren prekarizazioaren ondoriozko beste egoera batzuk. Etxeko sostengatzaile nagusia lanean ari den familien zailtasunek berretsi egiten dute dagoeneko enplegua izatea ez dela bazterkeriaren aurka babesteko neurri erabat eraginkorra. Horrela izanik, sostengatzaile nagusia lanean ari den familien % **36,2k** murriztu egin behar izan dituzte arropa, elikadura edota etxeko hornikuntzen gastuak. Etxe horien herenak baino gehiagok hartutako estrategia izan da; hala ere, ez da nahikoa izan familien ekonomia-arazoak arintzeko, eta % **17,1ek** kanpoko laguntza ekonomikoak eskatu behar izan dituzte, senideei edota erakundeei.

² Langabezia-tasaren inguruan hemen aurkeztutako neurrak alternatiboen kalkulak Estatu Batuetako Bureau of Labor Statistics erakundeko Florentino Felguerosok egindako proposamen metodologikoaren egokitzapena dira. Proposamen honen xedea langabezia kontabilizatzea da, horren definizio ofizialean (U3) oinarrituta eta, egun gehituta egongo ez lirakeen kolektibo batzuk ere gehitzea; hala nola, desmotibatu egin diren eta lana bilatzeari utzi dioten langabeak (U4); lan egiteko prest dauden inaktiboak (U5); eta borondatearen aurka lanaldi partziala duten pertsonak (U6).

³ Enplegu arloko babesgabetasunaz ari garenean, honakoez ari gara: berez langabezian dauden pertsonak, desanimoen ondorioz lana bilatzeari utzi diotenak, beren borondatearen aurka lanaldi partziala daukatenak edota enpleguaren erregulazio espediente baten mende daudenak.

⁴ Foessa Fundazioaren Integrazio eta Beharrian Sozialei buruzko inkesta.

Badaude beste egoera batzuk, ez hain ohikoak, baina lanean ari diren pertsonen familietan ematen diren zailtasunak ondo adierazten dituztenak. Horrela izanik, familia horien % 5,8k atzerapenak eduki dituzte etxebizitzarekin zerikusia duten faktura edo ordainagiriaren ordainketan (alokairua, hipoteka edota hornidurak). Azkenik, sostengatzaile nagusia lanean ari den familien % 7k horniduraren bat mozteko mehatxuren bat izan dute (ura, elektrizitatea...), edo etxebizitzak kanporatzeko.

Adingabeak dituzten edo egoera bereziki babesgabeen dauden emakumeek sostengatutako etxeak

Sostengatzaile nagusia lanean ari den etxeei dagokienez, azterketen arabera, bi profil espezifikoren babesgabetasuna aipatu behar dugu: Adingabeak dituzten eta sostengatzaile nagusizat emakume bat duten etxeak. Kasu bietan, dokumentuan adierazitako adierazleak larriagoak izaten dira, gainerako kasuetan baino.

Lehenengo kasuari dagokionez, adingabeak dauden etxeak, neurri handiagoan egiten dute bat gastuak murrizteko estrategiarekin (% 41,7) eta laguntza ekonomikoen eskaerarekin (% 22); gainera, ordainagiriaren baten ordainketan atzeratzeko eta hornikuntzak eten (% 6,8) edota etxetik kaleratzeko (% 10) mehatxu gehiago jasotzen dituzte. Kasu horietan egon daitezkeen etxeak % 40 gehiago dira, sostengatzaile nagusia lanean ari den etxeen kolektibo orokorrarekin alderatuta.

Sostengatzaile nagusia lanean ari den emakume bat den kasuetan, bazterkeria arriskua handiagoa da, bereziki bazterkeria larriaren kasuan (% 6,7); izan ere, sostengatzaile nagusia gizon bat den etxeetan (% 4) erregistratutako tasen kasuan baino % 70 handiagoa da. Aldeak are handiagoak dira pobrezia larriaren inguruko datuei dagokienez; izan ere, tasa (% 4,5ekoa da), eta lan egiten duten gizonek sostengatutako etxeetan erregistratzen denaren bikoitza da (% 2,1).

OHAR METODOLOGIKOA:

Argitaratutako informazio osoa Foessak 2018an egindako integrazio eta gizarte beharriari buruzko inkestatik dator. Horretarako, 11.655 etxe eta 29.953 pertsona hartu ziren lagin moduan. Horrek esan nahi du errore-marjina % 1etik beherakoa zela. Autonomia erkidegoen lagina 650 etxez eta 1.500 pertsonaz osatzen da, gutxienez. Horrek esan nahi du errore-marjina % 5,5ekoa izan daitekeela, gehienez ere.

